



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Andreas Lubitzen egia

Terrorismoaren biktimetzako memorial berria daukagu Gasteizen joan den martxoaren 24az geroztik. «Banco España» irakur daiteke -orain-tsu aldatu ez badute- okasiorako aukeratutako eraikineko fatxadan. Espainiako Gobernuaren jabetzapekoa da eta hamarkada bat zeraman

hutsik. Mariano Rajoy Espainiako presidenteak etorri behar izan du azkenean gortina granateak kontu handiz zabaldu eta gatazkaren ondorioz hildako «batzuen» omenez horman esekitako plaka agerian uztera. Ondoan zeukan Iñigo Urkullu lehendakaria ere, bizkartzain lanetan. Inork ez zuen argazkitik kanpo geratu nahi, antza.

Handik metro gutxira erori zen zerutik Ekkehard Hefter pilotu alemaniarra 1936an. Gasteizko agintariei altxamendu nazionalarekin bat egitearren esker ona adierazteko zerua zeharkatzen ari ziren sei pilotuetako bat zen Hefter, Hitle-rrek Kondor Legioarekin Franco laguntzera bidalitakoa. Uda-letxe parean lurrera behar baino gehiago hurbildu, kontrola galdu eta inguruko tximiniaren bat jo ostean, Heinkel He 51 aireplano zaharkituarekin batera Plaza Berrian erori eta mo-mentuan bertan hil zen pilotu gaztea. Ez zen bakarra izan, zoritxarrez. Antonio Peral 29 urteko esne saltzailea eta Vi-cente Lopez de la Calle 20 urteko arotzak ere bertan eman zuten azken hatsa, eroritako hegazkinak azpian harrapatu baitzituen. Irailaren 28a zen, goizeko zortziak, hiria faxisten eskuetan zegoen ordurako.

Tropelean hasi ziren hiritarrak ezbeharrak gertatu lekura hurbiltzen. Kezko zutabe beltza urrunetik ikus zitekeen. Laster zabaldu zen albistea garaiko Gasteizko 40.000 biz-tanleen artean. Hegazkin txikituak han jarraitzen zuen oraindik. Gertatua bertatik bertara bizi izan zuen Felix Pan-guak kontatzen duenez, Udaleko bi funtzionario pintura po-tea eta brotxa bana eskuetan hartuta irten ziren udaletxetik istripua gertatu eta gutxira, hegazkinean ageri zen esbastika pintura gorriz estaltzeko misioarekin -hildakoak etsaiari egoztearena ez baitute orain asmatu-. Hain egin bide zuten azkar eta txarto egin be-harrekoa, margotu eta gutxira esbastika berriro agerian baitzeukan he-gazkin zatituak. Hurren-go egunetako egunkarie-tan ez zen ezbeharrari buruzkorik aipatu. Sa-soiko agintariak istri-puan hildakoa pilotu alemaniarra zela ezkuta-tzen saiatu baitziren ha-sieratik, nazioartean al-bistea zabal ez zedin.

Argitu gabe geratu zai-gu, ondorioz, zer dela eta desbideratu zen Hef-ter beste pilotuengandik modu horretan, tximi-

nia jo eta udaletxe ondoan erortzeko. Ez dakigu zein zen be-re asmoa zehazki. Herri literaturaren arabera, Gasteizen eza-gutu berri zuen neska gazte bat txunditu nahi zuen hegazki-netik bertatik lore sorta bat eskainiz. Beste batzuek diotenez, bandera bat hedatzea zen bere asmoa. Edonola ere, lore sorta eta banderaren lekuan, hiru hilotz utzi zituen pilotuaren atrebentziak lekukotzan.

2015eko martxoaren 24an, Rajoyk pilotu alemaniarra erori zen lekutik metro batzuetara eraikin bat inaugura-tzen zuen une berean, beste pilotu alemaniar batek he-gazkin bat lehertu zuen Frantziako Alpeetan, mendi ba-ten kontra. Bidaiariak Bartzelonatik Düsseldorfera zihoazen. Jakina denez, ez bigarren pilotuak berak ez beste inork ere ez zuen helmuga erdietsi.

Rajoyrena ere ez zen askoz hobeto amaitu. Terrorismoaren biktimen omenezko plakak ez zuen egun bakar bat ere iraun bere lekuan. Jarri zutenek beraiek kendu omen zuten, inork ez daki oso ondo zergatik. Akaso, Ekkehard Hefter pilotuaren izena zerrendan sartzea ahaztuko zitzairen. Edo 150 hildako, beharbada, hildako asko ziren bata besteari itzal egiten has-teko. Azken batean, noiz uzten dio hildako batek beste bati itzal egiteari?

Askatasuna irabazteko egia kontatu beharra dago. Hala esan zuen Maroto jaunak memorialaren inaugurazioan, Ger-manwings konpainiako Airbus A320 hegazkinean zihoazen bidaiariak aspaldi ahaztutako errezoak etsipenez errepika-tzen zituzten bitartean. Ez zitzaion arrazoirik falta alkatea-ren erretolikari. Egia irabazten duenak kontatzen du askata-suna. Inor ez sartzeko moduan barrutik ixten den horietakoa. Eta memoria, Alpeetan, 1.500 metrora, gorriz pintatuta agertu zen kaxa beltz bat da.

Oharra (azken ordukua): Frantziako istripua gertatu eta or-du batzuetara, gizonezko bi pintura potea eta brotxa bana eskuetan ikusi omen zituzten hegazkina erori zen lekutik hurbil. Konfirmatu gabeko iturriek diotenez, oinezkoek es-painiar abizenak zituzten. •



1936ko irailaren 28an aireplano alemaniar bat erori zen Gasteizko Plaza Berrian.

GAUR8